

Marmari

6. alea / 2002ko abendua

Leitzako aldizkari gaztea

- Diego Riañori
elkarrizketa
- Okille tailerra
- Leitzako hizkerak
- Sara-Bermeo-Leitzako
- Denborapasak,
bitxikeriak...

Leitzan

bizi naiz!



ale honetan:



● 3. or. Editoriala.

● 4-8. or. Leitzara etorri naiz.

● 9. or. Testa.
Leitzako hitzak eta esaerak

● 10-12. or. Okille.

● 13. or. Ezetz asmatu?...

● 14-18. or. Elkarrizketa.
Diego Riaño

19. or. Toki izenak.

20-21. or. Leitzako hizkerak.

22-23. or. Sara-Bermeo-Leitza.

24-25. or. Nork asmatu zuen euskara?

26. or. Bizitzako misterioak.

27. or. Eroskopoia,
Denbora-pasak.

Leitzan bizi naiz

Leitzan bizi naiz, Leitzan bizi zara, Leitzan bizi gara, eta gainera gustora! Hemen bizi denak hori bada-ki, hemen bizi garenok hori badakigu. Leitzako herriaren izena ahoz aho ibili da azken aldi honetan eta, egia esan behar bada, ia gauza onik ez da esan. Espainia alde horretako komunikabideetan sekulakoak entzun eta ikusi behar izan ditugu, gehienak ere gezurrak, exagerazioak eta errealitatearen deformazioak.

Penagarria izan da ikustea herria inoiz zapaldu ez duten «kazetariak», Leitzara sekula hurbildu ez diren «tertuliano» eta adituak, Leitzaren inguruan eta leitzarren inguruan gaizki esaka. Penagarria esan dugu, baina lotsagarria ere esan genezaka, salagarria eta, baita ere, hasarretzeko modukoa. Izan ere, jende asko sutan ikusi da azken aldian, herriari eman dioten errepassoa ikusita.

Leitzako herriak duen izena, ona edo txarra, bere herritarrek eman behar diote eta eman diote beti. Leitzarrek eginak edo esanak izan daitezela

herri honen gaineko iritziaren oinarria, eta ez 500 kilometrorra bizi diren kazetari edo iritzi-emale profesional ezjakinek esandakoak. Haiak helburu jakin batzuk dituzte, Leitzarekin eta leitzarren ongizatearekin zerikusirik ez dutenak.

Askotan, beste herriren batetaz hitz egiten ari zirela ematen zuen, hain zen fantasiakoa esaten ari zirena! Beste Leitza bat ba ote dago? galdetzen genion geure buruari. Entzuten ari garen hori gure herriarengatik esaten ote dute?

Zoritxarrez, hain eremu zabalean herriaren izena garbitzeko bitartekorik ez daukagu. Egunkari handiak, telebista eta irrati kate nagusiak... ez dira herrira etorriko herritar guztien iritzia jasotzera eta, egun batzuk hemen egin ondoren, hemen benetan nola bizi garen kontatzera. Egia prefabrikatuak ematen dituzte, denak Madrileko filtro beretik paseak.

Zorionez, herrian bertan, eta baita

inguruan ere, Leitza zer den badakigu. Iritzi batekook eta bestekook. Hemen bizi garenok, nola bizi garen badakigu, eta pelikulak ikusteko zinera joaten gara. Herri atsegina da bizitzeko, lasaia, gustagarria; bere alde onak dauzka, baita txarrak ere, jakina, baina pozik bizitzen uzten duen herria da. Nola uler daiteke, bestela, hainbeste jende bertara etorri eta hemen bizitzen gelditu izana?

Herri honek bertan bizi denari zeozer eskaintzen dio, zalantzarik gabe. Integrazioa merezi duen herria da, eta integrazio ahalegin horren zenbait adibide aurkitu daitezke eskuartean duzun aldizkari honetan bertan. Ez dago Leitzaren apologia egin beharrik, ez baita beharrezkoa hemen gustora sentitzeko. Nahikoa da jakitea bertakook eta bertan bizi garenok herria estimatzen dugula, gustora bizi garela bertan, eta herriaren aurka esanen diren guztiak esanda ere, herri bizia, aktiboa, atsegina izaten jarrai dezan ahaleginduko garela, denon artean, denon onerako.





LEITZARA

ETORRI NAIZ

Etorkinen kontua, gaia, puri-purian dago. Izan ere, azken aldi honetan kanpoko jende asko etortzen ari da Euskal Herrira, Nafarroara eta baita Leizara ere. Etorkin hitza, hain zuzen, hortik heldu da, «etorri» aditzetik.

Baina hau ez da fenomeno berria. Egia da berriki izugarri indartu den fenomeno delako, eta azken aldian urrutiko herrietatik multzoka etortzen ari dela jendea. Baina gurera, Leizara, beti etorri izan da kanpoko jendea, bertan bizitzen gelditu eta bertakotu dena, herriari hazten lagundu diona.

Kanpoko jende dezente etorri gabe,

bestela, ezin da ulertu 1960 urtean 1.600 lagun zituen herriak 1975ean 3.200 lagun izatea, ezta? Hau da, 15 urtetan Leizako populazioa bikoiztu egin zen. Horietaiko asko inguruko herrietatik etorri dira eta, horrek, esaterako, hizkuntzaren erabileran galera handiegirik ez gertatzea ekarri du. Baina urrutiagotik ere etorriak dira Leizara, eta interesgarria izan liteke ho-

riengana hurbildu eta zer edo zer gehiago jakitea.

Artikulu honetan, hain zuzen, Leizara etorri diren horiengana hurbildu nahi izan dugu, estatistika zehatzik eta argigarrikerakutsi gabe, akaso, baina gutxienez gai honen inguruko zenbait ideia plazaratuz, denok horren inguruan pentsa dezagun aitzakia jarritz.



Leitzak jakin du, zalantzarik gabe, kanpotik datorren jendea bere baitan biltzen.

LEITZARA KANPOTIK ETORRIAK. ZENBAT?

Ez dugu datu zehatzik, baina asko direla ez dago zalantzarik. Etorkinak esaten dugunean, kasu honetan, Leitzatik kanpoko jendea esan nahi dugu; Malagakoa izan, Italiakoa, Hego Ameriketakoa edo Baztangoa, oraingoan, denak bildu ditugu etorkinen multzoan, nahiz eta bakoitzak bere berezitasuna izan baduen.

Leitzan, beraz, kanpotik etorritako jende asko dago. Lehen gogoratu dugu Sarrio sortu zenetik herriaren populazioa bikoiztu egin zela 15 urteko epean. Jaiotza-tasa handitzeak lagundu zuen, jakina,

Gaur egun Leitzan bizi den populazioaren portzentaje handi bat kanpoan jaioa da, edota gurasoak (bat edo biak) kanpoan jaiotak ditu

baina baita kanpoko etorrerak. Gaur egun Leitzan bizi den populazioaren portzentaje handi bat kanpoan jaioa da, edota gurasoak (bat edo biak) kanpoan jaiotak ditu. Gazte gehien-gehienak, zalantzarik gabe, bertan jaio eta haziak dira. Baina, esate baterako, 20 eta 30 urte bitarteko gurasoak non jaiotak diren begiratzeko hasiz gero, ohartuko gara asko eta asko kanpoan jaio eta geroago etorri zirela Leitzara bizitzera.

Leitzak jakin du, bistan denez, kanpoko jende hori guztia bere baitan biltzen, integratzen, eta aldi berean bere nortasunari eusten, argi baitago Leitzak sendo eutsi diola bere izaerari eta kultur ikurrei, euskara barne.

LEITZARA ETORTZEKO ARRAZOIAK:

Etorritakoak adina arrazoi egon litezke Leitzara etortzeko, baina okertzeko beldur handirik gabe esan dezakegu arrazoi nagusia lana izan dela. Garai batean Sarrioko lantegia izan zen bezala, gaur egun beste lan batzuk izan litezke arrazoi. Lanarekin batera familia edo bikotekidea bertakoa izatea aipa daiteke, eta zenbait kasutan ingurua, giroa edo baita euskararen bizitasuna bera ere.

Garai batean, inguruarekin komunikazioa eskasagoa zenean, arraroagoa gertatuko zen hona bizitzera etortzea lana bertan izan gabe. Gaur egun, ordea, komunikazioak azkartu eta arindu diren garai honetan, Leitzan bertan lana izan gabe, bizitokitaz ere har dezake kanpotik

etorritako jendeak: erdibidean dagoelako, herrigune kozkorra izan arren herri-giroa bizirik gordetzen duelako...

Polita litzateke, aukera izanez gero, honen inguruko inkesta zabal eta fidagarri bat edukitzea. Akaso ustekaberen bat ere hartuko genuke.

INTEGRAZIOA

Jakina, orokortzerik ez dago. Batzuk integratu dira eta beste batzuk ez. Integratu ahal izateko faktore asko hartu behar izaten dira kontuan, hizkuntza, kultura, ohiturak... Zenbat eta kulturaliki ezberdina izan, hizkuntzaren eta ohituren aldetik, orduan eta zailagoa izanen da integrazioa. Baina, nolahi ere, zailtasun guztiak gainditzeko balio duen beste faktore bat ere bada, garrantzitsua oso: jarrera eta izaera. Pertsonaren izaera irekiagoa edo itxiagoa izateak ere badu bere pisua, ezin ukatuzkoa. Integratzeko gogoz datorrenak ez du izanen gaindiezinezko oztoporik. Herriko bizitzan integratzeko gogorik ez duena, hizkuntza, kultura eta ohiturak ere hurbilekoak izanagatik, ez da ziur asko herrian integratuko.

Bestalde, bertakoen jarrera ere kontuan hartu beharrekoa da. Baliteke mendialdeko edo iparraldeko jendearen hasierako jarrera beste zenbait tokitan dutena baino hotzaxeagoa izatea hasieran, baina garbi dago, adibide ugari dagoelako, kanpotik etorrita ederki integratzeko aukera badagoela eta Leitzak ere bada-kiela etorkina bere baitan biltzen. Gauza guztiak bezala, denon aldetik ahalegingtxo bat eskatzen du horrek: bertakoak nahiz etorriak, biek ere jarri beharko dute zertxobait beren aldetik.

Integrazioaren adibide gisa, aipa liteke herriko bizitzan nolabaiteko ardura duten hainbat pertsona kanpotik etorri eta bertakotak direla: baditugu kanpotik etorritako alkateak, idazkariak, mendi-zainak, medikuak, apezak, ikastetxeko zuzendariak, zinegotziak, irakasleak... Kanpotik etorritako jendea ikusi dugu herriko taldeetan, elkarteetan, koadrillatan... azken batean herriko dinamika guz-



tietan parte hartzen. Leitzarrak beste hainbat herritan ikusten ditugun bezalaxe. Egia esan, ez da bertako berezitasuna, toki guztietan edo gehienetan gertatzen den gauza bera baizik.

AZKEN ALDIKO ATZERRITARREN ETORRERA. FENOMENO BEREZIA

Azken aldian, bestalde, hain ohikoa ez den etorkin multzoa ere etorri da Leitzarra. Ameriketatik edo Europako ekialdetik etorritakoez ari gara. Normalean, gainera, «etorkin» hitza aipatzen denean talde hauetaz ari gara. Leitzan ez dira asko, batez ere beste zenbait ingururekin konparatuz gero. Iruñea aldean askozaz ere gehiago dira, baina baita gure herriaren antza handiagoa duten Bera edo Irurtzunen ere, esaterako.

Leitzan, gaur egun, Ekuadorretik eta Errumaniatik etorritako bi multzo baditugu, eta baita beste herrialde batzuetatik etorritako banaka batzuk ere. Hauen egoera, normalean, zail xamarra edo oso zaila izaten da, inguru arrotz batera etorri behar izan dutelako eta, bestalde, beren herrialdean bertan zuten egoera gogorak bultzatu dituelako.

Pertsona hauek, bere jatorria dela eta, kulturaren, hizkuntzaren, izaeraren eta ohituren aldetik, ezberdintasun handiak sumatzen dituzte. Beren kultura, hizkun-

tza, ohitura edo izaera ez da hobe, ezta txarragoa ere. Beste gabe, ezberdina da. Eta hori, modu egokian ulertu eta eraman ez gero, gauza ederra eta aberasgarria da. Egia da integrazioa zaildu dezakeela, bere mundutik gurera etortzeko egin beharreko distantzia handiagoa delako, baina horrek ez luke oztopo izan behar, eta borondateak hori baino arazo handiagoak konpontzen dituela jakin badakigu.

Inozoak ere ez gara, eta badakigu zuri-keriak eta hitz hutsek ez dutela dena konpontzen, eta ez dituztela arazo errealak estaltzen. Oraingoan, etorkin hauek herriko eguneroko bizitzan integratzeko plan sakonik ez da egin, nahiz eta gizarte zerbitzutik edo beste talde batzuetatik harremana izan baduten eta haien eskuetan da goena egiten ari diren.

Urrutiko etorkinen kultura eta izaera oso ezberdina da. Hori, modu egokian ulertua eta eramana, gauza ederra eta aberasgarria da

Askotan, pertsona hauen lehentasuna eta kezkarik larriena egunari aurre egin ahal izatea da. Hortaz, denbora edo aukerara gutxi izaten dute bestelako kezka batzuei erreparatzeko. Zertaz ari garen? Adibidez, hizkuntza edo kultur integrazioaz. Komenigarria eta beharrezkoa izan liteke Leitzako kultura eta hizkuntza zein den ulertu eta horretaz ere jabetzea. Zaila? Jakina, batez ere ia-ia egunean eguneko ezin konponduz dabilenarentzat. Baina, bestalde, pertsona hauek ere esku-bidea dute gurea bezalako bizimodua egin eta bizi diren herriaren kulturalki integratzeko, denok dugun bizimodu sozial eta kulturala ere izateko. Kolektibo zigortu samarra den neurrian, gainera, laguntzeko ahalegin berezia egitea ere merezi du, ziur asko. Lehen esan bezala, ordea, ahalegina bi aldetatik egin behar dela uste dugu, norberaren egoera kontuan izanda eta abiapuntua zein den ere ahaztu gabe.

Ikusten denez, gai hau modu orokor xamarrean aztertu dugu. Izan ere, ia ez daukagu datu zehatzik eta, are gutxiago, irtenbide azkar eta egokirik. Baina aztertu beharreko gaia iruditzen zaigunez, herriaren bertan hitz egin beharrezkoa, zenbait ideia plazaratzea erabaki dugu, modu inprobisatu xamarrean izan arren. Eztabaida pixka bat sortzeko balioko balu, ontzat emanen genuke ahalegina.

Orain artekoa guk idatzia da. Nolabait esateko, guk gai horretaz pentsatu duguna edo dakiguna. Baina hori baino zuzenagoa da, jakina, Leitzara etorri direnei ahotsa ematea, eta horixe egin dugu hiru elkarrizketa hauetan. Atzerritik etorritako bi lagun elkarrizketatu ditugu, azken urteotan gure artean ditugun Jakima sahararra eta Rosa Elena ekuatoriarra. Hauen testigantza interesgarria da oso, urrutitik eta beste kultura batetik etorritakoen ahotsa direlako.

Bestalde, Mikel Illarregi elkarrizketatu dugu. Sor-tzez ere oso hurbilekoa dugu, eta urte asko egin ditu Leitzan, guztiz bertakotu arte. Gorago aipatu dugun integrazioaren adibide garbia dugu, herriko bizitzan oso parte hartze aktiboa egin duelako, eta herriko alkate ere izan delako. Bere iritzia ere balio handikoa delako elkarrizketatu dugu, Euskal Herritik etorri eta leitzan bertakotu direnen arteko ahots bat ere hemen jasotzeko

Rosa Elena Cumba Cumba

■ **Leitza toki egokia al da bizitzeko?**

Bai. Toki lasaia da, jende ona da hemengoa. Leitzak Ekuadorreko mendiak gogorarazten dizkit.

■ **Zerk ekarri zaitu Leitzara bizitzera?**

2000 urtean etorri nintzen pestetara, saltzera, postu batekin, eta orduan ezagutu nuen. Askok gustatu zitzaidan eta hona etortzea pentsatu nuen. Beste toki batzuetan, gainera, erresidentzia-txartela eta kontratu finkoa eskatzen zidaten pisu bat alokatzeko. Hemen, berriz, askozaz erraztasun handiagoak eman zizkidaten eta ez zailtasunik jarri, ezta fidantza ordaintzea eskatu ere.

■ **Zein da herrian integratzeko zailtasunik handiena?**

Guretzat, gure kultura, ezberdina delako. Jendearengana jotzeko beldurtu egiten gara, erreakzioaren bel-

dur gara, baina jendeak hitz egiten edo agurtzen gaituenean oso ongi sentitzen gara. Askotan, jendeak, auzoek, kafea hartzera gonbidatzen gaituzte.

■ **Zer behar da Leitzako bizitzan integratzeko?**

Agian irekiagoa izatea. Guk, askotan, ez ditugu elkarrizketak luzatzen hanka sartzeko beldurrez.

■ **Zer onartu behar da Leitzan bizitzeko?**

Hemen asko baloratzen da soldatapeko lan bat edukitzea, saltzen ari-tzea baino gehiago. Umeak haur-tzaindegira eramatea ere asko baloratzen da, ongi ikusia dago.

■ **Zeri egin behar zaio uko Leitzan bizitzeko?**

Deus bereziri ez. Jana aldatzen da, agian, baina hango janaren antzekoa ere aurkitzen dugu. Gero, arroparen kontua dago. Galtzak jartzeko lotsa-



tu egiten gara, guretzat tradizio handiko kontua delako arroparena, emakumeontzat batez ere.

■ **Zer eman dizu Leitzak?**

Lana lortu dut. Hemengo jendea, jende euskalduna, oso ona da, asko estimatzen dugu. Gainera, onartua sentitzen naiz. Valentzian, hiri batean, bolada bat egin nuen, baina han ezin nuen. Nahiago dut herri batean bizi, hiri handi batean baino.

■ **Hona etortzean euskararekin harremana izan duzu?**

Bai. Guk ez dakigu, baina gure haurra haurtzaindegira joaten da eta euskaraz egiten du. Etxera etorri eta askotan gurekin ere euskaraz aritzen da. Ikaragarri gustatzen zaio haurtzaindegira joatea.

Jakima Nafe

■ **Leitza toki egokia al da bizitzeko?**

Bai. Beste toki batzuetan ere bizi izan naiz, baina hau gehiago gustatzen zait. Herri lasaia da, jende ona dago hemen.

■ **Zerk ekarri zaitu Leitzara bizitzera?**

Alde batetik begiratu beharreko sabeleko arazoren bat nuen, bestetik ikasketak egin nahi nituen. Leitzan aurkitu dut hartu nauen eta maitasuna



eskaini didan familia. Han 2 urterekin galdu nuen aita, ama han daukat,

eta hemen amaren eta aitaren maitasuna eman didan familia aurkitu dut.

■ Zein da herrian integratzeko zailtasunik handiena?

Deus berezirik ez. Hemen oso ongi bizi daiteke.

■ Zer behar da Leitzako bizitzan integratzeko?

Atzerritarrek, paperak. Bestalde, oso garrantzitsua da lagunak aurkitzea. Irekiagoa edo itxiagoa izateak

ere badu garrantzia. Nik ez dut arazorik izan.

■ Zer onartu behar da Leitzan bizitzeko?

Nire kasuan, gurasoek jartzen dituzten arauak, han bezalaxe. Gainerakoan, deus ez. Bizimodu ezberdina egiten dut han edo hemen, baina hangoa naizela ahaztu gabe, sahararra naizela ahaztu gabe.

■ Zeri egin behar zaio uko Leitzan

bizitzeko?

Nik nire herria maite dut, eta pena handia ematen dit nire ama eta nire familia han uzteak; baina han ikasketak egitea, adibidez, askozaz zailagoa da, eta ikasi ahal izateko atera behar izan dut.

■ Zer eman dizu Leitzak?

Maitasun handia. Gurasoek, gure familiaren tabernako jendeak, lagunak, eta baita herriko beste askok ere.

Mikel Illarregi

■ Leitza toki egokia al da bizitzeko?

Herri guztiek bezala badu Leitzek «on eta hain on ez dena», momentuaren, giroaren eta norberaren egoeraren arabera. Gustora bizi daiteke egokia dena aprobeztatuz eta bakoitzak duen bizitzeko ingurune eta baldintzak ahal diren hoberenak eginez. Dena den ez gara bakarrik eta toki batean soilik bizi, beti beste esparru zabalago baten barruan gaude. Leitza baino zabalagoa den munduan gaude.

■ Zerk ekarri zaitu Leitzara bizitzera?

Duela 22 urte etorri nintzen hona, gazte garai hartan. Orduko bizitza eragin zidan Nafarroa aldera hurbiltzea eta hainbat tokitan lan aukera izanik «miresten» nuen toki euskalduna, menditsua, ederra... iruditu zitzaidan herri hau. Gainera, aitaren partetik aitona-amonak hemengoak nituen eta «sorlekura» bueltatzea ez bazen ere, arrotza ez zitzaizkida gertatuko uste izan nuen.

■ Zein da herrian integratzeko zailtasunik handiena?

Integrazioa, nire kasuan behinik behin, ez da une zehatz batean ema-

ten. Eguneroko bizitzan sartzen zaren neurrian, herriko giroan integratzen zara. Zailtasunak izan badira, baina bizitzak markatzen dituen berak dira, edozeinentzat izaten direnak, alegia. Beste kontu bat da, besteek nola hartzen zaituzten... horretan, urtetan zehar beti kanpotar, batzuentzat behintzat.

■ Zer behar da Leitzako bizitzan integratzeko?

Leitzan edota beste edozein herrian integratzeko, eguneroko bizitzan sartzea da «trukoa». Nire esperientziak hala dio. Kanpotik zatozenez, tokian tokiko ohiturak eta filosofia dagoela jakin beharra da. Horiek onartu eta norbereganatu behar ditugu. Horrek ez du esan nahi guztiarekin konforme zaudenik, noski. Abiapuntua da.

■ Zer onartu behar da Leitzan bizitzeko?

Lehenbizi, herri euskalduna dela. Ni familia euskaldunetik etorri arren, bost urtez geroztik Pasaiaiko Trintxerpen hazi nintzen. Leitzaren aldean, oso herri ezberdina: askozaz erdaldunagoa, giro urbanoagoa, langabezia, drogaren inguruan arazo handiagoak... hemengoaz oso des-



berdina. Garai hartan Leitzak ez zuen guzti hori bizi eta horregatik pentsamolde tradizionalagoetan oinarritutako herria zen. Hori «onartu» behar izaten da integratzeko derrizko prozesuaren hasieran.

■ Zeri egin behar zaio uko Leitzan bizitzeko?

Nik uko egin behar izan nion koardillari, handia gainera, giroari... Hala ere, lan arazoak zirela medio askok horrelako erabakia hartu behar izan zuten. Dena den, hemen egonda ez da uko egitearen kontua aztertu behar dena, tokian tokiko bizitzeko baldintzak, abantailak eta bizi-kalitatea hartu behar dira kontuan. Paradisua baldin badago, ez da mundu honetan behintzat.

■ Zer eman dizu Leitzak?

Galdera tipiko honi, erantzun topikoa; tokian baino, bizitzan bertan aurkitu ditut hartu beharrekoak. Leitzan bizitzeak, zenbaitetan lagundu dit horretan eta bestetik nortasun ezaugarria ezarri izan du, ezarri izan dit.

LEITZAKO HITZAK ETA ESAERA ZAHARRAK EZAGUTZEN AL DITUZU?

Oraintxe duzu erakusteko aukera. Erantzunak asmatzen badituzu ez dizugu saririk emanen, baina gutxienez zeure buruarekin pozik geldituko zara. Asmatzen ez badituzu, lasai, ez zara bakarria izanen, zure inguruan ere izanen dituzu ezjakin gehiago.

1.- Zer esan nahi du «alpetatu» hitzak?

- A) Alpetara oporretan joan
- B) Arnas estutu, larritu
- C) Ihes egin
- D) Alperthu

2.- Nola bildu zuen bere hiztegian J.M. Azpirozek «huraño» hitza?

- A) Musker
- B) Miker
- C) Muker
- D) Moskor

3.- Zer da «Estalsarie»?

- A) Azienda emea estaltzeko ordaintzen den saria
- B) Alkantarilla sistema
- C) Leitzelarreko paraje baten izena
- D) Baserriko eskean egiten zen ordainketa

4.- Nola da esaera? «Ikasiak badaki...

- A) Probatuak baleki
- B) Probatuak hobeki
- C) Probatuak ez daki
- D) Neronek baneki

5.- Nola da esaera? «Arri-urte...

- A) Larri-urte
- B) Zerri-urte
- C) Arto-urte
- D) Pesta-urte



6.- Hauetako zein da Leitzako euskara?

- A) «Lagako dostasu ikusten»
- B) «Ondo do. Ez al dezu geio nahi?»
- C) «Biziki untsa bizi gira hemen»
- D) «Eztakit nolakoak iñen giñuzen, baño attek esan dona...»

7.- Nola da esaera? «Etxe hutsa»

- A) Bihotz hutsa
- B) Bizi untsa
- C) Dena hautsa
- D) Hasarre hutsa

8.- Nola da esaera? «Jaietan jai, ...»

- A) Astean ere hala nahi
- B) Astean ere bai
- C) Biharamonean deustako ez zara gai
- D) Joder, ke guai



9.- Zer da «ostrilika»?

- A) Ostrari ateratzen zaion zukua
- B) Karrapeko arkuen izena
- C) Ortzadarra
- D) Basurdearen letagina

10.- Nongoa da esaera zahar hau? «Zakurra beti zakur, katua berriz makur»

- A) Leitzakoa
- B) Leitzakoa
- C) Leitzakoa
- D) Inongoa ez, oraintxe asmatu dugun ergelkeria besterik ez da

11.- Zer da «basastoa»?

- A) Basoko astoa.
- B) Basoko hostoa.
- C) Bizkaieraz «heldu zara?»
- D) Ezpainean ateratzen den pikorra.

12.- «Elur lapaxta egin du». Noiz esanen dugu hau?

- A) Sekulako elurtea egin duenean.
- B) Ezarri duen elur geruza txikia denean.
- C) Elurrak pastaren antza daukanean.
- D) Sekulan ez.

13.- Makurtuta, nor bere txurmioen gainean eserita egoteari, nola esaten zaio?

- A) Pikatxuan egotea.
- B) Kuklilletan egotea.
- C) Pikotxean egotea.
- D) Aukera guztiak ongi daude.

14.- «Azkar begigorritu zen» esanez gero, zer diogu?

- A) Alergia dela-eta begia azkar gorritu zitzaiola.
- B) Azkar mozortu zela.
- C) Ikusteko gorriak ikusi zituela.
- D) Ez dugu deus ere esan nahi.

15.- Zer da «txantxaria»?

- A) Zurezko jostailua.
- B) Beti txantxetan dabilena.
- C) Txantxetan eta barrez aritzen dena.
- D) Hitz hori ez da euskara.

16.- Hauetako zein da Leitzako euskara?

- A) Txonkatila.
- B) Txurmioa.
- C) Tobilloa.
- D) Ez bat eta ez beste.


17.- Nola da esaera? «Errotan beta,...

- A) bidean porrota.
- B) bidean sota.
- C) bidean lota.
- D) bidean trota.

18.- Nola da esaera? «Gaur yai, bihar yai, etzi...»

- A) putz usai.
- B) izerdi usai.
- C) denak nere zai.
- D) ere yai.

OKILLE TAILERRA



Denok ezagutzen ditugu Lontxo, Maite, Jose Mari, Ana, Estibalitz edo Milagros. Plazan ikusi ditugu behin baino gehiagotan beren eskulanak erakusten; edo gainerako herritarrek bezalaxe, kalean ikusten ditugu, tabernan, pasean, kultur ekitaldietan... herriko bizitzan parte hartzen. Baina horretaz gainera, Okille tailerren bilduta ere ikus ditzakegu, egunero elkartzen baitira beren eginkizunetan. Zertan aritzen diren? Nola? Hurrengo lerrootan horixe azalduko dizuegu.



FITXA

- **Sorrera:** Duela 10 urte ingurusortu zen
- **Partaideak:** Gaur egun sei langile biltzen dira
- **Arduraduna:** Pablo Feo
- **Izaera:** Leitzako Udalaren zerbitzu bat da
- **Diru-iturriak:** Udalak % 75 eta Nafarroako Gobernuak % 25. Eskulanen salmenta.
- **Egoitza:** Haurtzaindegiaren ondoko gelak
- **Hartzaileak:** 18 urtetik gorako langileak eta nolabaiteko gabezia dutenak
- **Telefonoa:** 948 610901



LANGILEAK



Ana Maria Diosdado
40 urte



Estibalitz Zabaleta
28 urte



Maite Iturrarte
36 urte



Milagros Labaien
38 urte



Jose Mari Zabaleta
27 urte



Lontxo Perurena
38 urte

OKILLE: LAN EGITEKO ETA BIZIMODU OSOA EGITEKO GUNEA

Gauzak ez ditugu normalean kapritxo egiten, eta Okille tailerra sortzea ere ez da salbuespena. Okilleren helburua, tailerreko langileei bizimodu osoago bat izateko aukera ematea da. Eta hau nola egiten da? Batez ere, dinamika bat emanda. Tailerrean parte hartzen dutenek ordutegi bat izaten dute, egutegia, betebeharrak... Baina ez da bakarrik nolabaiteko «lotura» edo «erantzukizuna»; horretaz gain, irteerak, kirola, festak, antzerkia...

ere programazioan sortzen dira. Azken batean, ohiko bizimoduak erakusten dizkigun bi alderdiak elkar-tzen dira: lana eta ardura alde batetik, eta aisialdia bestetik.

Aipa ditzagun, banaka, Okille tailerrekoen jardueretako batzuk:

LANAK:

- Papera birtziklatzea
- Harri kartoia
- Birtziklatutako materialarekin egindako lanak (autoak, hegazkinak, itsazontziak...)

- Gurutze puntua. Herriko etxeak dira, lan honetan, arrakasta handiena lortu dutenak.

- Enkargu bereziak: ezkontzetarako gonbiteak, buruhandiak, olentzeroa, jaiotzarako figura berriak, haurtzaindegirako lan bereziak...

BESTELAKO EKINTZAK:

- Asteroko bisitaldia Leitzako azokara
- Asteroko bisitaldia Tolosara: igerilekua, paseoa, kafea, kartak...
- Urtean behin, haurtzaindegiarekin

batera, irteera

- Noizean behin egiten diren irteerak: Donostia, Elizondo...
- Eskolak antolatzen dituen ekitaldiak

AURRERANTZEAN

TAILERRA:


Komunak moldatzeko asmoa dute, orain artekoa behin-behinekoa baitzen. Bost urtez eskean ibili ondoren dirulaguntza lortu dute. Dirulaguntza honekin ordaindu ezin dena Leitzako Udalak ordainduko du.

Bestalde, sukaldetxo bat eta mikrouhina jarriko dira, gasa bazter utzita. Izan ere, ez omen da oso segurua.

Lanari dagokionez, orain arteko lanekin eta eskatuko zaizkien lan bereziekin jarraitzeko asmoa dute, beti bezala ahalik eta hobekien egiten.

NORBERA:

Okille tailerreko langileen helburuak gainerako langile eta pertsonen helburu bereitsuak dira: gauza berriak ikastea, trebetasun berriak lantzea, jende eta toki berriak ezaugutzea, erabakiak hartzen ikastea, erabakiak hartzea eta, jakina, zorionsu bizitzea.




MUSUNZAR
OSTATUA
JATETXEA
Elbarren kalea, 14
Tel.: 948 51 06 07 - 948 51 04 75
LEITZA (Nafarroa)

HERRIKO TABERNA
Torrea
Euskal presoak etxera!
Tel.: 948 61 09 09



Gaztañaga
TABERNA
Otaratekoak, pintxo beroak,
kaxuelak
Tel.: 948 61 07 08



ADUR
TABERNA
• Otartekoa ogi beroarekin
• Kaxuelak
• Era askotako pintxoak
-Olagarroa - Grabak
-Ziztorra sagardotan
Elbarren, 16 - Leitza
Tel.: 948 61 08 64

Herrian zure berri izateko modu onena duzu
Marmari aldikaria, gainera merke-merke.
Aldizkari honetan iragarkia jarri
nahi izanez gero jarri gurekin harremanetan
948 51 08 14 telefonora deituta.

Arakindegia
Jatetxea
Tel.: 948 51 00 52

Jose Ignacio Arzallus
Harategia - Urdaitegia
Etxeako txistorra
Tel.: 948 51 03 77 - LEITZA
Tel.: 948 68 30 42 - BERASTEGI

Okindegia - Gozotegia
EGVZKITZA
Erreka, 3 beheka - Tel.: 948 51 06 14 - LEITZA
Elbarren, 35 - Tel.: 948 61 06 46 - LEITZA
San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 65 00 41




HARATEGIA-URDAITEGIA
URKIOLA
Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea
Tel.: 948 51 04 67 - LEITZA

Ezetz asmatu

Hemen dituzue Marmariren 6. aleko argazkiak, zuen begiaren zorroztasuna neurtzeko. Egia esan, batzuetan zailagoa bada ere, argazkiren batean ez dago aparteko eragozpenik nor den nor asmatzeko. Nolanahi ere, urteen joan-etorriak nolako eragina duen ikusteko ere ez da txarra. Izan ere, duela 10 bat urte ateratako argazkiren bat ere ekarri dugu hona, eta denon itxuran ikus daiteke urteak ez direla alperrik joaten. Jakina, bizitza gozatzea eta biziz ikastea ez da debalde lortzen.

Tira, begira itzazue argazkiak eta araua gogora ezazue: ondokoari galdetzeak ez du balio!




Pertsonai ezkutua

Batzuetan zail samarra jarri dugula esan digutenez, zenbait pista emanen dizkizuegu:


- 1.- Izakia da
- 2.- Pertsona da
- 3.- Leitzarra da
- 4.- Leitzan bizi da
- 5.- 100 urtetik beherakoa da

Bost pista emanda asmatzen ez baduzu, ordu erdi pasata ingurukoei galdetzeko baimena ematen dizugu.



Diego Riaño

Leitzar gazte ez ohikoa



FITXA

Jaiotze-data: 1980-12-14

Ikasketak: «IEE» eta Basogintza

Jaiolekua: Iruñea

Lanbidea: eraikuntzan aritua, gaur egun hargina

Bizitokia: Leitza

Zaletasunak: kirol guztiak, lagunekin egotea, ehiza, arrantza, bertsoa

Bertsotan ikusiko dugu noiznahi lagunartean, baina Leitzaoko pilotalekuan ere ikusi izan dugu jendaurrean aizkora lanetan, lotsagabe. Plaza gizona baita Diego Riaño. Extremadura eta Leon aldean du jatorria, gurasoak hangoak baitauzka, baina inork baino hobeki ikasi du bertako tradizioa

usaintzen eta, batez ere, sentitzen. Izan ere, garai bateko eta orainsu arteko bizi-moduari estu lotuta dauden zaletasunak bere egin eta landu ditu: bertsoa, pilota, aizkora, ehiza...

Euskara bere bigarren hizkuntza izaki, komunikazio tresna izateaz gainera jostatzeko eta disfrutatzekeo tresna ere bihur-

tzea lortu du, eta hitzekin jostatuz eta bertsoak eginez gozatu egiten du. Elkarrizketa osatzeko ez zaio mingainetik tira egin behar, baduelako zer kontatua eta baita kontatzeko trebezia ere. Bertsorako ahots berezia eta ederra duen bezalaxe, hizketarako ere patxada eta grazia handikoa da.

MOTZEAN

- Bertsolari bat: Jon Maia
- Aizkolari bat: Larretxea
- Pilotari bat: Galarza
- Edateko: ure
- Jateko: entsalada freskoa
- Oporretarako toki bat: Pirinioak, Leon edo Asturiasko mendik
- Bizitzeko toki bat: Leitze
- Musika edo abeslari bat: Mikel Urdangarin
- Pertsonai bat: Mister Bean
- Animalia bat: hartza
- Kolore bat: urdiñe
- Konforme zaude bizitzeko egokitu zaizun garaiarekin? Zertaz kejarerik ez daukagu
- Usoa edo basurdea? Basurdea
- Ehiztariak ekologistak al zarete? Denetatik dago. Batzuk bai, badie ehiztari oso fiñek, baño beste batzuk desastre
- Telebista edo irratia? Telebista
- Irakurtzea edo zinea? Irakurtzea
- Zer da zailago, errima bilatzea edo neurrian asmatzea? Neretzat neurrin asmatzea

■ Zein da zure jatorria? Gurasoak nongoak dituzu?

Nere ama Extremadurakoa da, Cacereskoa. Herri oso tiki batekoa da, Mirabete, Aresoren tipokoa edo. Atte Leongoa da, Asturiasekin muga itten don paraje batekoa. Oso herri tiki da, 100 lagun ingurukoa. Lehen denak artzaiek zien eta gaur egun ere bai, gehienak, eta negun oso jende gutxi egotten da. Oso paraje politte da: mendik, errekak, oso gustora joaten naiz. Askoz ere gustorago joaten naiz atten herrire amaren herrire baño.

■ Askotan joaten al zarete?

Askotan ni bakarrik edo lagunuen batekin joaten naiz, asteburue pasatzera edo.

■ Eta Leitzarekiko aldea handia al da?

Herrik ez dakit baduen hainbesteko diferentzie, baño jende bai. Extremaduran oso desberdiñek die denak, «viva la vida» ta. Eta ez dittue gauzek batere serio hartzen, eta segittun itten due konfiantza. Leongoak ya die hemengo tipokoak.

■ Guraso erdaldunak dituzu, baina zuk euskaraz badakizu. Zein izan da euskararekin izan duzun harremana, edo bizipena? Hizkuntzaren kontua nola bizitu duzu?

Etxen beti erderaz. Eskola erderaz in dot, eta penatzen naiz, gehio ikasteko euskaraz. Oso berandu hasi nintzen hizketan; igoal joaten nintzen kanpora, arrantzan edo, eta hemengo arrantzale zaharrak galderak itten zizkitean, euskaraz. Eta, ostran apuroa, «bai, ez, ez due pikatzen trutzak...», krixtoen hanka sartzek itten nittun, eta hala ere saiatu itten nintzen. «No, no entiendo» esan beharren, saiatu erantzuten. Beti saiatu, nahiz eta krixton dispartatek esan, orain ere esaten dittot, baño hala ere saiatu, saiatu; jende zaharrakin beti asko egondu naiz, hizketan, historiak aditzen eta hola ikasiz, hemengo jendeakin eta saiaturaz.

«Krixtoen hanka sartzek itten nittun, eta hala ere saiatu itten nintzen. No, no entiendo esan beharren, saiatu erantzuten. Beti saiatu»

■ Zenbat urtekin ikasi zenuen euskaraz?

13 edo 14 urtetik aurrera edo hasi nintzen. Eta gehiena 16 edo 17 urtekin ikasi nun. Nik lehenago oso gutxi itten nun, gustatzen zitzen baño ez nun ia hitzik itten. Gero Aresoko neska bat in nun, 16 edo 17 urtekin, eta berak erderaz gaizki,

nik ere euskaraz gaizki, baño beti mutilek aurrera in behar, eta neri tokatu.

■ Euskaraz ederki ikasi eta gainera bertsozale amorratua zara. Bertso-laritzarekin lehendabiziko harremana noiz edo nola izan zenuen?

Lehendabiziko bertsoak lanen aittu nittun. Etxabakoitzen ari giñen obra baten, 16 edo 17 urtekin. Obran Xabier Arrarasekin aritzen nintzen, hizketan, kontuk eta kantak... Igoal joaten giñen dunperrakin deskargatzeko obrako beste puntera eta, ostiela bazen, kantan hasten giñen, pozangatik edo. Berak esan zien bazula bertsoan afizioa eta behiñ esplikatu zien txapelketa baten zer pasatu zen: bertsolari bat klasifikatu zuela eta jendea ziztuke nola arittu zen, eta gizon horrek ziztu hoik adittuta zer bertso bota zun, eta hoik denak esplikatu zizkien. Bertsoa bota zien ehun bat aldiz, nik ikasi arte; ez nekin aurrena zer esan nahi zun bertso horrekin, Xabierrek esplikatu zien dena. Bertso sentikorra, emozionantea zen, eta neri krixton emozioa in zien bertso horrek, eta beste bi bota zizkien tipo hortakoak. Baño krixton emozioa, eh? Azalen

nola jartzen da oillo pikorra? ba holaxe. Ordun galdetu nion, «ba al dazkizo bertso gehio, hola, zaharrak eta?». Baietz esan eta, aurrena, idatzi in zizkien, obran, gosaltzeko ordun... Gero telebisiotan ikusten hasi nintzen, Hitzetik Hortzera, doñuk eta... Igoal ez nittun ulertzen bertsoen erdik, baño doñuk eta, erri-mak... Gero erosi nittun zinte batzuk plazan, ta ordun hasi nintzen, hasi nintzen, ta gero baki-zo, gaben trago batzuk in da, juergatan bertso batzuk, eta gero ta gehio, gero ta gehio. Ta orain lagun arten, juergatan,

bertso batzuk... ez dakigu asko, baño dakiguna hortxe joaten da.

■ Eta bertso-gintzarako nola entrenatzen zara?

Igoal lanen ari naiz, gauz bat ikusten dot eta «horri bota behar diot bertsoa», nere burutik, eta batere pentsatu gabe igoal... eta igoal hartzen dot errima zail bat,

eta ez zait errima hori ateratzen eta esaten dot: «parada», errima hori «umilla» da, «ea, -illa bukatzen dien hitzek: ixilla, dadilla, hurbilla, hilla, trankilla...» Eta ordun errima hoik burun pentsatu itten dított; huts itten dotenen edo gutxi dauketenen, geldittu, bertsoa kendu eta errima gorde hurrengorako.

■ Almazena betez, pixkanaka.

Almazena itten. Eta gero neurritan, hor dauket krixton desmadrea. Asmoa dauket, orain, zertan huts itten doten ikusi eta hortan saiatu.

■ Leitzan norainoko aukera daukazu bertsoan aritzeko? Bakarka, lagunekin?

Bakarka ez. Lagunekin, apariren bat, edo despedida dela, «bota bertsoa», juergatan, «ea, bota behar dizuet bertsoa», kanpoan diela ikusten badot, barrenen musikakin ezin baita; ta gero ehizen ere bai, puestoan gaudela, emisoratik... Baño hemen nere koadrilleko lagunekin oso bertso gutxi. Beti egotten naiz baten bat etortzen den edo, juergatan...

■ Zure gurasoak erdal-dunak izanda, zure bertsoarako zaletasuna harriarri gertatzen zaie? Ulertzen dute?

Bai. Gaiñera nere attek baibaitauzke familiarrak erdi poetak, liburuak idatzi dittuenak eta... Igoal hortik zer-baitte...

■ Bertso zaharrak entzuten omen dituzu.

Bai, orain pixko bat bajatu naiz, baño bai

■ Zer nahiago duzu, lehengo bertsoakera hura edo oraingoa?



«Bertsoan aritzen naizenen, saio erdin edo, ikustea aurrera zoazela, ondokoari erantzuten diozola eta badaukezola erantzuteko, eta esaten dozo orain arte indako lanak orain ikusten die»

Bertso zaharrak onak omen zien, baño oraingoa bezalakoak die. Gertatzen dena da bertso zaharren zintek daudela, hartu zittuela 5.000 bertso eta hortik atera dittuela 10 bertso on; eta erakusten dittue hamar onak eta jendek esaten do «bertso zaharrak krixtonak hittuen». Ez, ez,

2.000tik atera die 20 bertso on. Eta orain 2.000 bertsoatik aterako zien 200 bertso on. Ta orain maille haundigoa dago. Ta esaten da «lehenokoak berezkoak zien eta orain bertso eskolak...». Bertso eskolak meritue igual-iguala do, edo gehio. Lehenoko errimak ikusten die: lau aditz, igual, bertso baten errima. Orain ez. Orain aditze, hitze... eta holaxekoa.

■ Zer da bertsoa egiteko garaian satisfakzio handiena ematen dizuna?

Aritzen naizenen, saio erdin edo ikustea aurrera zoazela, ondokoari erantzuten diozola eta badaukezola erantzuteko, eta esaten dozo «jode, orain arte indako lanak orain ikusten die». Ateratzen bazaizo bertso bat ona, bi, edo hiru, hamarretik lau bertso on, horrek ematen do zoriontasun hori edo.

■ Inoiz pentsatu al duzu urrutirago joatea, Nafarroako txapelketan edo?

Ez, ez. Plana, beti ere, ez dot in nik. Nik esan nun afizioa nula, eta bertso eskolan egoteko aurrenekoa, hemen, laguneren arten; momentuz beti ere beste planik ez, ikasi eta ongi pasatu...

■ Hala ere, deskartatu ezta ere.

Deskartatu ez, baño oso zalle ikusten dot nik hori, hortako asko behar da.

■ Aizkora, bertsoa, pilota eta antzekoen zalea zara. Bizimodu modernoarekin lotuta ikusten al dituzu?

■ Etorkezunik ba ote dute?

Etorkezunik ez due. Bueno, bertsolarik badue bere zera, ateratzen die. Etorkezune, nahiz eta ez den ikusten, nere ustez saiatu behar da mantentzen, denen arten.

«Zuk ez baldin badakizo zergatik, ez dozo zuzen itten. Gauz batek bestea ekartzen baito. Oso ongi esplikatu eta afizio oso handie do Patxi Astibiak, eta neri asko lagundu dit, eta oso eskertue nago»

Aizkoran bezala. Aizkoran oso gazte gutxi daude, baño daudenak lagundu, ta animatu, eta hola eusten zaie gauzei. Nere ustez denen arten aterako die eta batek bestekin badu loture, hemengo gauzek die, eta hemengo lehenagoko afizioak; igoal hemen lehenago bakarrik zegoan aizkora, pilota, apostuk eta bertsoa, besterik ez, eta nere ustez lotuk daude.

■ Aizkorarekin nondik nora hasi zinen?

Lehenago pilotan aritzen nintzenen eskuk oso beratzak neuzken, batere kallorik in gabe, oso beratzak. Leonen negoan ordun oporretan, eta attek esan zien eskuk gogortzeko ona zela mazakin aritzea, aitzurrekin, aizkorakin, eta han bagiñun ikullun egur bat edo beste hausteko, eta aizkora zahar bat zegoan eta, Jesus, ni aurrenekoa. Indarrak ittea, eta kolpek ematea... Ordun eman nittun aurreneko kolpek. Pozik, «jode, zer herraienta, eta nola mozten don». Eta egun baten mendira joan nintzen, aizkora hartute, ikustera, probatzera, zer zen aizkoran aritzea. Eta arittu nintzen egur baten, baño gañen jarri gabe, eta krixton eskapadak eta, desastre konpleto! Hurrengo egunen anpollak! Pixko bat deskantsatu nien eta «berriz probatu

behar dit», eta Lekunberritik ekarri nittun egur puske batzuk. Ez nekin nola josten zien koadradilloatan, eta lagun batek esan zien, «bai, bi egur azpin jartzen dittue, enborra altxatu itten da eta moztu dezakezo lurre jo gabe. Hau hola, zeharka, eta bestea hola...». Hasi giñen eta krixton desastrea! Ez giñuzen kortek bukatzen, eta hola hasi giñen. Eta gero laneko batek, Gerardok, esan zien «ez, hau hola hartu behar da, aizkora hortik sartzen da...». In nittun lau-bost bat hila-bete ikasi nahien eta orduko sekulen aizkolari bat aizkoran ikusi gabe. Pestetan eta bai, publikoan arten, baño ez fijatu ez kortea, ez zein zen, inñor izagutzen ez. Eta ordun hasi nintzen jendea izagutzen, joaten nintzen exhibizioak eta txapelketak ikustera, kortek ikusten nittun...

■ Orduan hasi al zinen serioxeago?

Bai. Pestetako herri kirole-tako saioa nola izaten da? Ordureko, nere lagunek: «badula aizkolaria, Diego aterako dela». «Aterako al haiz?», «Bueno, aterako nak, saiatuko nak». Eta atera nintzen. Oso urduri, egurren gañen ez nintzen egoten, egurrek oso ttikik zien, eta txelaie oso gaizki inñe, eta jendea gaztea, denak hasi berrik... Atera nintzen eta desastrea, nekina erakutsi nun eta kitto, eta Patxi Astibiak urrutitik ikusi eta berak esan zien: «badaukezo kolpea eta badaukezo estiloa, baño ez dakizo aizkoran eta nahi badozo nik erakutsiko dizot». Eta Patxiarekin hasi nintzen. Dena ongi esplikatu zien, nola hasi, eta zergatik dien gauzek. Zuk ez baldin badakizo zergatik, ez dozo zuzen itten. Gauz batek bestea ekartzen baito. Oso ongi esplikatu eta afizio oso handie do, eta neri asko lagundu dit, eta oso eskertue nago.


■ Eta Santi Olanorekin pi-

lotalekuan egindako apostu hura nola sortu zen?

Erakustaldi bat in giñun Allozen, hango bi, Xanti eta lauok, elkarrekin nahastuta. Hango batek eta bik irabazi giñun, eta Santi ez zen pozik geldittu, eta egun baten, nik ez dakit nola «apostue inñen al duu, plazan?», «nola ba?», «joanen dela jendea!», «bueno, bueno»; «baño pentsatuko due dirungatik in behar duula», «jarriko duu sarrera oso merke, gastuk ateratzeko, ta oso diru gutxi jokatuko duu», ez baitzen dirungatik apostue. Eta giroa sortzen zela ikusten giñun eta ordun animatu giñen.

■ Gustora gelditu al zifieten?

Oso pozik. Jendeakin oso pozik; denak animatu, zer moduz galdetu. Jende





asko joan zen, krixton txaloak; oso pozik gelditu giñen jendeakin.

■ Pilotan ere aritu zinen, ezta?

Eskolako garaian, gimnasia, futbolen eta pilotan hasten giñen. Pilotan hasi nintzen pixko bat eta gustatu in zitzien, apuntatu eta joaten nintzen. Asten bi egunez entrenatzen giñen, oso gutxi. Batzutan bi lagun, bestetan bat, hurrengoan bost... desmadre oso haundie zen. Gero asten bi egunez aritzen giñen, batzutan 15 minutu, bestetan 7... desastre. Takoak jartzien igoal ordu bat etxen, krixton kapritxoakin, eta gero igoal 10 minutu pilotan. Igoal kasualitatez ordun hala izan zen. Gero Mugairera joan nintzen ikastera, eta gero Iruñera, eta Leitzeko pilota eskola apartexego utzi nun.

■ Ehizerako zaletasuna ere baduzu, handia gainera. Nondik etorri zaizu?

Hori lagunekin sortu zait. Eskolan beti denak aditzen nittun «usoak, eta basurdek...». Ni ez nintzen joaten, etxen inor ez ehiztarie, baño neri gustatzen zitzien,

eta gero amaren herrire joaten nintzenen, han ehiztarik die. Attuna eta osabakin joaten nintzen. Segittun osabak erregalatu zitean baliñezko eskopeta. Orduk eta orduk pasatzen nittun arbolen azpin, txoriri esperatzen. Bueno, hasieran tiratxinasa-kin ibiltzen nintzen, eta gaiñera bi txori harrapatu nittun horrekin. Zalle da, eh? Eta gero ya baliñezkoa, ordun ya zozoak eta hola; eta gero esperoan 14 urte betetzeko kartutxozkoa ekartzeko. Kartutxozkoa ekarri eta lagunekin hasi nintzen ehizen. Usotara aurrena, eta gero basur-detara.

■ Bietara joaten zara?

Bai. Ehize asko gustatzen zait, baño neri zakurrekin gustatzen zait. Ehize billatu, esperatu beharrean. Zu usotara puestoan zaude eta usoak etorri itten die eta pun, pun, pun, abajo, almuerzo, trago, eta tirote eta... Eta neri ehizen gehio gustatzen zait, lan gehio ittea, pieza billatzea. Zakurrekin tapa-tapa basurdea billatu, ollagorra billatu, lan gehio in eta zuk billatu. Zakurren lana ikusi...

Jarraitu genezake, jakina. Beste gai batzuetan sartuz gero ere izanen luke Diegok zer esana. Baina nonbait muga jarri behar eta horretantxe utziko dugu. Hala ere, galdera ez baina Diegori beste mesedetxo bat eskatu diogu: Leitzako herriarentzat osa dezala bertsoa. Hona bere erantzuna:

(Doinua: Kaixo, mutil mañontzi)

Zazpi muga inguruan
Euskalerrian barruan
Mendi ederren artean gaude
Gu haien beruan
Norbaitek lan egin zuan
Ete bere ereduan
Bizi gerade Leitzako herrian
Lurreko zeruan
Bizi Gerade Leitzeko herrian
Lurreko zeruan

Herri hontan pozik nago
Hori ez da hain arraro
Txantxangorri bat bezala libre
Inoren esklabo
Aukera ugari badago
Beroa ez da faltako
Herriko atea edonorentzat
Zabal-zabal dago
Herriko atea edonorentzat
Zabal-zabal dago

Gustora hemen kantari
Sekretoataz naiz ari
Neska ederrak ere herrian
Badaude ugari
Hor soltera dagonari
Oraintxe libre nago ni
Agur neskatxak agur herria
Ta agur Marmari
Agur neskatxak agur herria
Ta agur Marmari

BA AL ZENEKITEN...?

Marmariren aurreko alean ere zenbait toki-izenen berri eman genizuen. Izena eta izenaren jatorriaren azalpena, edo dagoen ustea behintzat. Oraingoan ere bide beretik jo dugu, informazio iturri bera erabiliz (*Nafarroako toponimia eta mapagintza* liburua), eta Leitzako zenbait toki-izen jaso ditugu.

Batzuk lehendik ere izenak eta azalpenak ezagutuko dituzue. Beste batzuk izenak bai, baina horien inguruko azalpena ez. Beste zenbaitek, agian, izenak ere ez dituzue sekula entzun. Ea artikulutxoaren denontzat baliagarria den, ikastea beti gauza ederra izaten baita.

KANTARIBASO:

«Abeslarien basoa» ere deritzona. Dirudenez leku honetan lanean aritzen ziren aizkolariak egiten zituzten abesti saioengatik zor zaio izen hori. Abesti horiek berak, ondoren elizan abesten omen zituzten eta beraz, denbora aprobeztatzuz basoa izaten zuten entsegu leku.

KATELEKU:

Karreteran alde batetik bestera kate bat jartzen zuten eta oinezkoek eta kotxez pasatzen zirenek ordaindu egin behar izaten zuten pasa ahal izateko; hortik datorkio beraz izen hori. Leku horretan ordaintzeko zegoen etxeari deitzeko ere erabiltzen zen izen hau.

MAIMUR:

Esaten dutenez, entzuna eta ezaguna dugun Marik askotan zeharkatzen omen

zuen Maimurreko zubia. Joxe Miel Barandiaranek Leitzan entzuna zuenez, Marik Maimur ondoan zegoen putzu batetik sortzen omen zituen ekaitz eta haize bolada handiak.

Marielbor lekua ere badirudi Mari izenetik datorrela, Nafarroan bertan ugarriak baitira mitologiako pertsonaietatik sortutako leku-izenak.

MEAKAKO ITURRIA:

Iturri hau apostu baten lekuko izan zen, bertan erabakitzen baitzen nor izango zen Leitzako baserri bateko oinordeko. Kontatzen dutenez, baserri honetako bi anaiak zelebretarriak omen ziren. Anaietako batek sekulako indarrak omen zituen eta bi anaiak apostua egin omen zuten etxeko oinordeko zein egin. Meakako iturritik gora kintala bizkarrean pasa behar omen zuten baina anai indartsuenak zera pentsatu omen zuten: «*Gure anai horrek ez dik hemendik pasatzen kintalik*» eta iritsi baino lehen kintala bota egin omen zuten eta oinordetza galdu.

OKABIO:

Mendi honetan jentilenak direla esaten den kobazulo misterioitsu batzuk omen daude. Oso sakonak omen dira, estuak, ikustekorik ez dagoena, hain lehorrak izanik ez baitu ez estalakitia eta ez estalagmitarik.

OLLIN:

1717ko dokumentu baten arabera, Leizta eta Ezkurra herriei dagokien lur zatia.

1787an gizon bati munizio eta kobrezko txapak egiteko fabrika bat eraikitzeko baimena eman zitzaion. Gainera, Leizta eta Ezkurra jendeak, bere industriarako beharrezko zuten egurra emateko agindua jaso zuten.

ORDEKAKO ZELAIA/PILLOTASORO:

Ordeka hitzak *zelaidi* txiki bat adierazi nahi du, artzaien artean pilota jokuak egiten ziren lekua gainera. Inongo paretarik gabe jokatzeko zuten, pilota, batek besteak botatzen. Zelaidi hau, askotan mendian kokaturik egoten zen. Aitzurrarekin arrasto batzuk egiten zituzten, jokatzeko lekua zehaztuz. Gauza bera adieraziz, toponimian beste izen bat ere aurkitu dugu: **pilotasoro**. Bi leku hauetan artzaiak pilotan ibiltzen ziren.

TARDOA:

Izen bereko etxeari zegokion borda. Patziku Perurenak «*Leitzako Errege Erreginak*» liburuan honela dio: «Euskara zaharrean *dardo* hitzak lantza esan nahi zuten, eta badirudi dardo tiratzaile treberen bategandik datorrela etxe honen izena».

URREMEATZETA:

Aintzina landutako mehatzeen galeriak, diotenez frantsesek landuak gainera. Diotenez, lur jauzi baten ondorioz zazpi langile beraien zaldiekin lurperaturik geratu ziren. Mehatze honetan pirita, kalkopirita, beruna eta karbonatoak daude baina toponimiak dioten bezala, inoiz ez da urrerik aurkitu.

TXARAGORRI:

Burdin ura duen iturria, orain urte gutxi arte bere ezaugarri indargarriengatik oso preziatua. Izen honi lotutako beste bat ere aurkitu dugu: **urgorri**.

USATEGIETA:

Izenak berak garbi adierazten duen bezala, uso eta beste hegazti migratorioen pasaleku garrantzitsua.



dittot hartzen, bihar etorri beharko dot. O que te parece? No es verdad? Probatuko dittot eta bihar esanen dizot»

EUSKALOA:

Auskalo! Auskalo zer den hizkera molde hau. Euskara omen da, baina erdararekin ederki nahasia, batzuetan modu harrigarrian gainera. Batez ere gaztetxoan artean entzun daiteke, eta nahikoa da goiz bat haur talde batekin pasatzea gisa honetako harribitxiak jasotzeko. Hona ekarri ditugun adibideak Leitzan entzundakoak dira:

«Hori ostran fazille da (oso erraza dela, alegia)», «gazta blandoa (gazta beratza edo biguna)», «paritzen ari da (umea egiten ari da)», «follatzen ari da (larrua jotzen ari da)»

Horrekin batera, «euskaloea» sailkapenaren barruan, osagai guztiak euskararenak dituen hizkera dugu, baina ohiko hizkera modu harrigarrian aldrebesten duena. «zu nongoa haiz?» bezalakoak soilik gazteei entzuten dizkiegu, baina «joan dezaket» ikusgarria eta «ikusidizot» hiztun zaharxeagoen eta helduen ahotan ere entzuten ditugu, baita oso hiztun trebe eta onak direnen ahotan ere.

EUSKAL TELEBISTAKOA:

Telebista magia dela entzun dugu askotan. Horrek, akaso, azalduko luke euskal telebistaren kamerek leitzar askoren hizkeran duten eragin magikoa. Izan ere, euskal telebistaren kamaren aurrean Leitzako «dot», «gion», «ongi»... formak, «det», «genun», «ondo»... bihurtzen dira. Harrigarria bada ere, Leitzakoa ez da batua bihurtzen, gipuzkeraren antzeko zerbaitek baizik. Nolanahi ere, hizkera molde hau euskara da eta, entzutea xelebrea gertatzen den arren, ezin da esan horregatik bakarrik euskara ona

ez denik. (*Oharra: jakina, gu ez gara inor «euskara ona» zer den eta zer ez den esateko. Gauzak azaltzeko modu bat besterik ez da)

«Gu pestatan elkarrekin ibiltzen gaa, oso ondo, dantzan aitzen gaa, etxea ahal den beranduna jjiioaten gaa, diru guzik gastatzen dittuu, ear-ki gosaltzen deu...»

EUSKALKITUA:

Euskalkia da, bertako hizkera, batuaren zipriztinekin. Batzuetan, zipriztina baino gehiago, «brotxakada» da. Normalean, aditzak ematen dituen arazoak konpontzeko erabiltzen den teknika da, euskara batuaren adiztauletatik behar dena ekarriz. Euskara batutik osagai gehiago edo gutxiago hartuagatik, hizkera molde aberatsa eta txukuna izan daiteke eta hala da askotan. Azken batean, handik edo hemendik hartua, baina euskara da.

«Esatea aztu zetzium. Baño gero eman genizkion»

ESPAÑOLA:

Hizkera molde aski ezaguna eta Leitzan ere, bertakoa izan ez arren, aski hedatua. Ia-ia denok erabiltzen badakiguna eta, gehiago edo gutxiago, denok erabiltzen duguna.

«Estuvimos en la txozna de las ikastolas y nos preguntó a ver si sabíamos euskara. Pues claro, le dije, si lo que casi no sabemos es castellano. «Entonces porque estáis todo el día hablando en castellano?», dice el tío. Jode, pero es que es distinto, le dije...»

EUSKAÑOLA:

Hizkera molde hau ez da ia-ia bertan entzuten, inguru erdaldunetan hazitako haur euskaldun berrien hizkera propioa izaten baita. Hala ere,

tarteka-tarteka, antzekoak entzun daitezke. Euskara eta erdararen arteko nahasketa da, baina «euskazofrenia» hizkeraren kasuan ez bezala, esaldi berean nahasten dira bi hizkuntzak:

«Esan du el de la cazadora verde que etorri behar dugu un poco más tarde. Si badakigu ez digula utziko, que más berandu ere estará cerrado»

BATUA:

Hau ere erabiltzen da gurean. Batua, euskalkia bezalaxe, ona, egokia, traketza, zuzena edo okerra izan liteke. Gehienbat idazteko, Euskal Herri osora hedatzen diren komunikaziotarako eta funtzio formaletarako sortu bazen ere, bestelako egoeratan ere erabiltzen da. Batuaren erabileran bertan ere aldeak ikus daitezke: batu zorrotz-zorrotza edo ortodoxoa, batu akademikoa, batu erlaxatua, euskalkiaren ukitua duen batua... Adibiderik ez dugu jarriko, artikulu hau bera batuaz idatzia baitago.

ONDORIOAK

Bistakoa da erdararen presioa eta indarra, gure utzikeria edo errazkeriarekin batera, euskararen erabilera nolabait aldrebesten ari direla. Hala ere, euskara bizi-bizirik duen Leitzan bezalako herri batean, sena oraindik bada, eta badago nor eta zer begiratu hizkera bizia eta arina lortzeko. Alegia, «zenbat euskara» egiten den oso garrantzitsua iruditzen zaigun arren, «nolako euskara» egiten den ere garrantzitsua iruditzen bazaigu, horretan ere ahalegintxo egin dezakegu. Hizkuntzarekin jostatzea, probak egitea, hitzei buelta ematea, arauak iraultzea... eta hiztun onekin hizketan aritzea atsegina da, eta komunikaziotarako tresna zorrotza eta findua edukitzen laguntzen digu.

SARA-BERMEO-LEITZA

herrien arteko elkar ezagutza bultzatzeko ekimena

Hiru urte joan dira ekimen hau abian jarri zenetik. Ekimen xumea, harrokeriarik gabea, protokolo gutxikoa eta herritarren artekoa. Izan ere, herrien arteko eta herritarren arteko harremana eta elkar ezagutza bultzatu eta indartzea zen ekimen honen helburua.

Hiru urte egin ditugu, eta nolabaiteko zikloa osatu da, hiru herriotan antolatu delako dagoeneko elkarrekin egoteko aseteburua. Hiruetan programazioa oso antzekoa izan da, pretentsio handirik gabea baina atsegina, antolatzaileentzat garrantzitsuena elkar ezagutzeko aukera ematea baitzen.

Balantzea positiboa da eta, aldi berean, ohi den bezala, gazi-gozoa. Oro har, hiru urteotan antolatutako ekitaldietan oso gustura egon gara, ongi pasa dugu, neurri batean behintzat elkarren berri izateko aukera ere eduki dugu, eta lanerako jendearen inplikazioa eta laguntza ere izan dugu. Egia da, bestalde, kostatzen dela herri batetik bestera jende multzo handia mugitzea, eta Sarara nahi baino jende gutxiago hurbildu dela aurretan.

Nolanahi ere, hau idazten ari garen momentuan antolatzaileen arteko balo-



razioa oraindik ez dugu ezagutzen, ezta aurrerantzean segida nola emanen dioten ere. Beraz, gorabehera guztiekin ere, gure ustez positiboa izan dela esan daiteke eta, besterik gabe, ekimen honen aurkezpeneko eta azalpeneko sortu zen idatzia ekarriko dugu hona, eta aurretan Saran egindako asteburuaren berri ematen dugu.

ZERK ELKARTU GAITU?

Sara, Bermeo eta Leitza. Euskararen lurraldean erdararen mareak gora egin due-

nean, euskarari bizi-bizirik eutsi dioten hiru irla. Erdararen itsasoaren gainetik euskaraz bizi nahi duten hiru herri, euskararen mareak berriz gora egin eta Euskal Herria, euskararen herria, berriz osatzen den arte. Hiru herri ezberdin tamainan, lanbidetan, itxuran, baina euren nortasunaren osagai nagusienean, euskararen, bat egiten dutenak. Euskara izan baita, eta da, hiru herriotako berezko eta gutziko hizkuntza, orain arte gorde dena eta aurrerantzean gordeko dena, eta hiru herriok beste gauza guztien gainetik elkartzen gaituena.



SARA. 2002KO URRIAREN 12A ETA 13A

URRIAREN 12A, LARUNBATA

Dantzariak:

Sara eta Leitzako dantzariak aritu ziren herriko plazan, denak ere gazte-gazteak. Ikusleen artean, hiru herriotako jendea eta baita zenbait turista ere, zer ikusten ari ziren oso ongi ez zekitenak.

Jokoak:

Ohi bezala zenbait joko egin zen. Aurreko urteotan bezalaxe, jokoetarako parafernalia handirik ez dela behar erakutsi zen. Izan ere, herriotan bertan aspaldi egiten diren joko xeblebre eta dibertigarriak ezagutu ahal izan ditugu, noiznahi eta nonnahi erabil litezkeenak.

Poteoa Saran:

Horrek beti ongi samar funtzionatzen du. Zergatik ote? Hango eta hemengo musikariek espezial elkar hartu zuten eta giro polita izan genuen. Batzuk, bertako ohiturak jarraitzeko edo, poteoan Ricard-a estimatzeko ahalegina ere egin zuten.

Afaria:

Pilotalekuan. Ona eta ugaria, eta gainera postretako bertako euskal pastela. Ondoren, sekula nekatzen ez den Jaione Olazabal giroa animatzen, eta baita Leitzatik joandako txistulari eta atabalaria ere. Dantzariak ere eguneko bigarren dantza saioa egin zuten, oraingoan luzeagoa, libreagoa eta informalxeagoa. Afalondoa, ohi den bezala, batzuk luzeagoa eta bestek motzagoa egin zuten.

URRIAREN 13A, IGANDEA

Mendi irteera:

Eguraldi bikaina lagun Larunera egin zen igoera, Sarako plazatik abiatuta. Laruneko kaskoan dauden bentek eta eraikinek itsusten badute ere, Sarako auzoetatik ibiltzea eta tontoretetik dagoen bista gozatzea gauza ederra da. Panoramika benetan ikusgarria dauka mendi honek.

Pilota partidak:

Ezker paretarik gabeko pilotalekua da Sarako plazakoa. Leitzarrak ohituta ez dauden arren, ongi moldatu ziren eta partida gogorra egin zuten. Nekatu ere, ederki nekatu ziren eta azkenean 30 eta 28 markagailuan.

Abesbatzak:

Gazteak izan arren, Asketakoek igande goizetan ere kantatzeko gai direla erakutsi zuten, eta bestondoa eta ahotsa galtzea ez direla nahitaezkoak. Bertako kantariak ere, helduxekoak, aritu ziren.

Zikiro jatea:

Zutik jan behar zela esan ziguten, baina, nonbait, ahalegin handiegia eskatzea zen eta, ohartu orduko, denek bilatu genuen non eseri. Bazkari goxoa, berriz ere, eta kalitate handiko abeslari eta musikariak bazkalondoa. Ah, eta Bermeotarrak aurpegian eta bizkarrean masajeak ematen egindako lana ezin ahaztu, ez baitzen nolanhikoa izan.

Bukatzeko, ahaztu gabe, eta antolatzaileen izenean, eskerrak parte hartu eta lagundu duten guztiei: dantzari ttikien taldea eta taldeko arduradunak, txistulari eta atabalaria, Jaione Olazabal, Asketa abesbatza eta, oro har, Sarara joandako guztiei.

NORK ASMATU ZUEN EUSKARA?

Asmatu, norbaitek asmatu behar zuen

Izan ere, norbaitek, noizbait, nonbait eta nolabait asmatu zuen euskara. Inoiz pentsatu al duzu nor izan ote zen, eta nola egin zuen? Nori demontre bururatu zitzaion «dot» aditza asmatzea? Tira, hori ez da hain arraroa, edonork asma lezake horrelako bat. Baina «zezkitzion»? eta «giñekarzkiñenen» aditza? Nori bururatu ote zitzaion «giñekarzkiñenen» aditza? Ez pentsa, ez da asmatua. Leitzan bertan zaharrek erabiltzen zuten aditza da, zaharren ahotik jasotakoa baita.

Inork pentsatzen badu euskaldunoi hizkuntza Jainkoak eman zigula, eta konkretuki Leitzako euskara ere Jainkoak zuzenean eta oso-osorik eman zigula, ez du horrelako buruhausterik izanen. Baina pentsatzen duenak gizakiak hasieran hizkuntzarik ez zuela, eta Leitzako euskara ez zela unibertsoaren jatorrizko edo sortzeko hizkuntza, pentsatu beharko du gure historiako momentu batean norbaitek «giñekarzkiñenen» aditza asmatu zuela. Norbaitek izan behar zuen, nahitaez, aditz hori esaten lehendabizikoa.

Pozik gelditu ote zen bere buruarekin? Satisfazioa sentitu ote zuen? Nahita egin ote zuen? Norbait inpresionatu nahi ote zuen, edo norbait izorratu? Txiklea jaten ari ote zen? Izan ere, aditz bakar batean bi «ñ» eta bi «n» biltzea, xelebrea da. «Giñekarzkiñenen». Leitzarra ote zen, edo akaso Txinako etorkinen batek asmatu ote zuen?

Baina goazen poliki-poliki. Ziur asko,



Garai bateko leitzarrek asmatu zituzten «ziñuzen» eta «zetziun» bezalako aditzak.

euskara asmatu zutenak ez ziren aditzekin hasi. Aditzak, bestelakoetan ongi trebatu ondoren asmatuko zituzten, zailena azkenerako utziz. Hori izaten da ohiko bidea, eta euskararen sorrerarekin gauza bera gertatuko zen. Aditzik gabeko hizkuntza izanen zen hasierakoa, beraz. Adibidez:

«Nik zu nnnngggha, nnnngggha, nnnngggha».

«Nik» eta «zu» ordurako asmatuta zeuden, jakina. «nnngggha» horren esanahia ulertzeko, ordea, hiztunaren keinuei erreparatu beharko zioten. Eskuaz mendia erakusten bazion, ziur asko han

gordetako zerbait erakutsi nahiko zion. Lurrean borobil bat margotu eta bularra bortizki astintzen bazuen, gurpila asmatu berri zuela eta harro zegoela erakutsi nahiko zion. Hankartea igurtzi eta gerialdea aurrera eta atzera astintzen bazuen, espeziearen biziraupenerako urrats efektiboak eman nahiko zituen.

Hasieran, hortaz, «ni», «zu», «bai», «ez», «jan», «lo» eta gisako oinarritzko hitzak asmatu zituzten. Gero, auskalo zenbat denbora igarota, etorriko ziren izen konplexuagoak eta aditzak. Geroago bururatuko zitzaion norbaiti mendiari «mendi» esatea. Norbait horren buruta-

Gure historiako momentu batean norbaitek "giñekarzkiñenen" aditza asmatu zuen. Norbaitek izan behar zuen, nahitaez, aditz hori esaten lehendabizikoa

zioak sekulako arrakasta izan eta, gaur egun, 700.000 inguru euskaldun gara hitz hori erabiltzen dugunak.

HITZ LUZEEN ZERGATIA

Baina, agian, hitzak ez zituen pertsona batek bakarrik asmatu. Gure ustez, hitza zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta gehiago izanen ziren hitz horren sorreran parte hartu zutenak. Izan ere, mendiari «men» esaten ahal bazitzaion, zertarako luzatu eta konplikatatu? Zertarako «mendi», bi silabadun hitza? Ziur asko, aldi berean asmatu zuelako edo protagonismo arazoak zirela medio, beste norbaitek mendiari «di» deituko zion, eta ados jarri ondoren, negoziatuta, «men» eta «di» elkartu eta «mendi» osatu zuten.

Hala izanez gero, teoria horrek berak azalduko luke «giñekarzkiñenen» aditzaren sorrera. Aditz hori asmatu zen garaian, euskaldunen populazioa hazten ari zen, gero eta gehiago ziren. Aditzak asmatzen, beraz, gero eta euskaldun gehiago aritzen ziren. Aditz horren kasuan, hain zuzen, sei euskaldunen artean asmatu zutela pentsa dezakegu. Batek «gi» proposatu zuen, besteak «ñe», eta besteek, «karz», «ki», «ñe» eta «nen». Ezaguna da euskaldunen artean kontsentsuak lortzeko dugun zailtasuna, eta horren erakusgarri da aditz forma hau. Inork amore eman nahi ez eta, azkenean, aditz eroso eta motz bat hautatu beharrean, denak bil-

du eta «giñekarzkiñenen» sortu zuten.

Hizkuntzalariek, handiuste ikaragarrikoak izaki, aditz hauek azaltzeko bestelako azalpenak eman izan dituzte. «Giñekarzkiñenen» horren barruan hainbat marka eta morfema ikusten dituzte:

Guk (NORK) pertsonaren marka...giñ
 Ekarki aditzaren erroa.....ekar
 Pluralaren marka.....z
 Partikula indargarria.....ki
 Hikari eta lehenaldiari
 dagozkionak.....ñenen

Baina nola demonio pentsatu behar zuen garai bateko euskaldunak, aditz bat egiteko, gauza horietan guztietan? Pertsonaren, denboraren, pluralaren eta abarren morfemak zein ziren erabaki baino lehen errinzozeronte iletsua edo haitzuloetako hartza gainera etorriko zitzaizkion-eta. Nola hasiko ziren garai bateko euskaldunak morfematan eta markatan pentsatzen, gramatika asmatu gabe zegoen garaian? Nahiko lan izanen zuten sua, gurrupila edo kulero-kaltzontziloak agerian uzten ez zituzten galtzak asmatzen, horrelakoetan hasteko. Hain azalpen bihurria eta sofistikatua asmatu duenak beste helburu ezkuturen bat izanen du. Agian, euskaldunen arteko kontsentsu eta batasun falta ezkutatu, eta hizkuntza konplexu eta zoragarria sortzeko gai ginela erakustea.

HASIERAN DENA ERRAZAGOA ZEN

Gure teoriaren frogagarri, bestalde, elkarriketa sinpleenak ditugu. Izan ere, garai batean, gizarte primitiboan, bizitza oso xinplea zenez oso gauza gutxi behar zen, eta oso gauza gutxi zegoen. Harreman sozialak ere, beraz, oso oinarritzkoak ziren, eta izendatu beharreko kontzeptuak oso gutxi: pertsonak, jakina, eta zenbait oinarritzko ideia. Adibidez:

- Eup!

- Ei!

- Zu!

- Zer?

- Ure

- Hau?

- Bai

- Ah!

- Aio



Horrek erakusten digu hasieran hitz guztiak motzak zirela eta pertsona bakar batek sortuak. Geroago, gizarte konplikatzen hasi eta populazioa hazi zenean, sortu ziren hitz luze eta petralak, lehen azaldutako kontsentsu faltaren ondorioz. Horrela iritsi gara gaur egun honelako esaldietara:

«Ondoriozta zenezakete ahalbidera ziezazkiguketeni?»

Gauzak zuzen eta txukun egin bagenu, hori bera horrela esanen genuke gaur egun:

«On ze ahal bi?»

Baina ez. Guk bestela egin behar, dena konplikatua. Eta gaur egun euskara ikasi nahi duenak, a ze lanak! Kontuak kontu, gure aurrekoek euskara asmatzeko garaian horrelaxeko arazoak izan zituzten, eta horren ondorioa da gaur egun dabilgun hizkuntza, batzuen ustez nor-nori-nork petralez eta konplikazioz josia, beste batzuen ustez hizkuntza perfektua eta zerutiarra, sofistikazioaren paradigma.



Mendiari «mendi» deitu zioten. Zergati?.

Bizitzako misterio handiak

Gizakia gizaki denetik, hamai-ka galdera egin dizkio bere buruari. Galdera sakonak, trenszendenteak, biziaren misterioa argitzen lagundu diotenak. Nor gara, nondik gatoz, zergatik ez dago zulo-rik gabeko donuts-ik? Baina galdera hauek ez dira filosofoen kontu hutsa. Gu denok, noizean behin, horrelako hausnarketa eta pentsamendu sako-netan mugiltzen gara, eta honelaxeko galderei erantzuna bilatzen saiatzen gara. Ariketa ona da, adimena zorrozten laguntzen duelako. Horregatik, zuen adimena ere zorrozten laguntzeko, honako galderak ekarri ditugu hona. Bizitzako misterio handiak dira:

- 1.- Gailetak denborarekin bigundu egiten badira, madalenak zergatik gogortzen dira?
- 2.- Hortzetako pasta, tuboaren barruan, txuria da. Ateratzen denean zergatik dauka arrasto gorriak?
- 3.- Non dauka «h»a «leioa» hitzak? Eta «leoiak»?
- 4.- Nola muntatzen da grua bat?
- 5.- Gizakia tximinoarengandik dator, edo tximinoa gizakiarengandik?
- 6.- Gizakiak idazten ez zekienean, nola eramaten zuen etxeko kontabilitatea?
- 7.- Nola iritsi ziren mamiferoak Madagaskarrera?
- 8.- Ba ote dago izaki inteligenterik beste planetetan? Eta gurean?

9.- Ba ote dago «zeniezazkiguketen» bezain aditza konplikatua daukan beste hizkuntzaren bat?

10.- Zergatik esaten zaie leitzarrei «fanfarroiak»?

11.- Zergatik ote da interesgarria eta notizia futbolari bati, astearte goizeko entrenamenduan, kopetan pikor bat ateratzea?

12.- Ordenagailua gizakiak asmatua eta obeditzeko sortua bada, nola uler daiteke berak guri adarra jotzea, ziria sartzea, nahi duena egitea...?

13.- Zer da hobea: Rio de Janeiroko ihauteriak edo Iruñeko sanfermiñak?

14.- Gure planetaren kontrako aldean daudenak, zergatik ez dira erortzen?

15.- Zein da gorpila asmatu zuenaren bigarren abizena?

16.- Tren bat goizeko zazpietan Iruñetik ateratzen bada, eta beste tren bat Gasteiztik ordu berean, nola du izena makinistak?

17.- Nork garbitzen ditu ziklistek lasterketan botatzen dituzten plastikozko ur-botilak?

18.- Non hasi eta non bukatzen dira Leitzako kaleak?

19.- Batikanoaren arabera deabruak norbait «poseitzen» duenean, ezagutzen ez dituen hizkuntzatan hitz egiten du. Ongi egiten ote dute? Hitzun berrien akats gramatikalak egiten ote dituzte?

20.- Ba ote dago benetan La 2-eko dokumental zoragarriak ikusten dituen inor?

ASMAHIZUNA

*Begi aurrean gela bat dugu
Gela horretako leihoa irekita dago
Gela erdian mahai bat
Mahai ondoan, lurrean kristal
puskak
Ondoan ur litsa
Eta ondoan, Joxe eta Joxepa
lurrean etzanda, hilik*

Zer gertatu ote da? Pentsa ezazu, burua estutu. Ea asmatzen duzun.

Ez duzu asmatzen? Tira, arrastoren bat emanen dizugu.

1. arrastoa: Haize erauntsi batek ireki du leihoa.

Zer? Ez al da nahikoa?

2. arrastoa: Joxe eta Joxepa ez dira pertsonak

Horrela ezta ere? Ea hirugarren arrastoarekin.

3. arrastoa: Joxe eta Joxepa gorri-gorriak dira.


Ez? Ez duzu asmatu? Detektibea izateko asmoa baldin bazenuen, hobe duzu beste zerbait pentsatzen hastea. Soluzioa irakurrita asmatuko ahal duzu!

Soluzioak: Joxe eta Joxepa arrainak dira eta Iurreko kristal puskek arrain-ontzarenak dira.


DENBORA-PASA

1. Sei hitzak bi norabidetan idatzi behar dira.

1. Jateko erabiltzen den ontzi biribila.
2. Loretan jarri.
3. Arabako herria.
4. Epea.
5. Juntagailua.
6. Rutenioa.



2. Koka itzazu beheko adreiluak behar den tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Soluzioak: 1. 1. Platera. 2. Loratu. 3. Araia. 4. Tala. 5. Eta. 6. Ru. 2. Ez dago arbolik adar ihar bakorik.

LIZARRAGA

Harategia

Tel.: 948 51 02 83

BULDAIN

agentzia inbiliaria

Amazabal 37 (eskola ondoan)
LEITZA (Nafarroa)

Tel.: 948 510534 / 649 47 66 15

Gaztea zara.
Ospa ezazu!

NAFARROAKO KUTXA

Esaiguzu nolakoa
zaren eta zein pentsio
komeni zaizun esango
dizugu

CAJA LABORAL
PENSIOKATZEK ESKERRA

EROSKOPOA



ARIES: Aurrea beitza oso-oso inportantea da, beño kontun izan atzek dantzaten dula aurrea.



TAURUS: Eskandalotik eskandalora zabiltze azkenaldi hon-tan. Ia noiz heltzen zan.



GEMINI: Ezpain muimentu hoik itten dittozon bakoitzen, gaizki pentsatzen hasten naiz.



CANCER: Halako eta bestelako, beti txorabiatu beharren uzten dittozo denak. Ai, ai, ai...



LEO: Basamortun galduta zaudela sentitzen dozo askotan. Badakizo zer in behar dozon.



URGO: Ahotsa zaintzea komeni da, batez e parrarri gelditzea nahi ez badozo.



LIBRA: Galtza motzak jantzi, atrebittu eta entrenatzen hasi. Hola, igual, fitxatuko zattue.



SCORPIUS: Arpegiko pikor hoik euroak balie, aberatsa izanen ziñeke.




SAGITARIUS: Jan, jan eta jan. Gero, ean eta ean. Beño ikusten ai al za nola jartzen ai zan?



CAPRIKORNIUS: Soñeko horrekin inguruko guzik ikatzen dittozo. Neskatan edo mutilletan ibilli nahi badozo, aurrena arropaz aldatu.



AQUARIUS: Lotan zaudenen, lehioa itxi aurretik, kaletik e zurrunket aitzen die ta.



PISCIS: Erretzailea al za? Ez? Ordun, nola botatzen dozo hainbeste keia burutik?

zer diozu?

eta zuk,

Igor Aldaia



- Zenbat ordu lo egiten dituzu egunean?
Gutxi, 7 ordu edo horrela.
- Zein da irakurri duzun azken liburua?
El Señor de Los Anillos.
- Mendia edo itsasoa?
Mendia
- Noiz idatzi zenuen azkeneko eskutitza?
Umm, noiz zen? Ah, bai abuztuan.
- Inauteriak edo festak?
Festak
- Zenbat denbora pasatzen duzu eguneroko telebistaren aurrean?
Bi ordu normalean.
- Kirola, ikusteko edo egiteko?
Ez dakit, egiteko gehiago gustatzen zait ikusteko baino.
- Dutxa azpian kantatzen al duzu?
Ez
- Bizitzeko, hiria edo herria?
Ja, ja, ja, herria
- Asteko egunik hoberena?
Ba, ostirala edo larunbata
- Eta txarrena?
Astelehena
- Hanburgesak edo banabarrak azarekin?
Joe, biek ditut gustoko. Ez dut biziorik jateko garaian.
- Nora joanen zinateke oporretara?
Afrikako sabana batera

Estitxu Caballero

- Zenbat ordu lo egiten dituzu egunean?
7 ordu, edo 7 t'erdi.
- Zein da irakurri duzun azken liburua?
Behi euskaldun baten memoriak
- Mendia edo itsasoa?
Mendia. Itsasoak beldurra ematen dit
- Noiz idatzi zenuen azkeneko eskutitza?
Orain dela bi hilabete edo
- Inauteriak edo festak?
Biak
- Zenbat denbora pasatzen duzu eguneroko telebistaren aurrean?
Azken aldi honetan batera ez. Irratiz enteratzen naiz gauzetaz.
- Kirola, ikusteko edo egiteko?
Ikusteko
- Dutxa azpian kantatzen al duzu?
Ez
- Bizitzeko, hiria edo herria?
Herria, dudik gabe
- Asteko egunik hoberena?
Ostirala
- Eta txarrena?
Ez dakit. Astelehenak ere ez dit ematen halako tristurarik
- Hanburgesak edo banabarrak azarekin?
Hanburgesarik ez dut jaten, baina banabarretan salda besterik ez dut hartzen.
- Nora joanen zinateke oporretara?
Kubara, saltsa dantzatzera, edo Jamaikara

